

SANTA TERESAREN JAIOTZAREN 5. MENDEURRENEAN

SANTA TERESAREN GUTUN BERRIA

Eskertzen diogu Frantzisko Garmendia jaunari, santa Teresaren gutun autografo baten lau fotokopia gure eskuetara heldu izana. Aurrez Patxi Uribarreni eman zion horren berri; honek gurekin komentatu zuenean, fotokopia hori eskuratzeko gogoa piztu zitzaigun; maiatzaren 12an iritsi zitzaigun. Inprimategikoei adierazi genien *Karmel* aldizkariaren aurtengo 2. zenbakia prestatu utziko genuela argitaratzeko; baina egun batzuk atzeratzea erabaki genuen idazlan labur hau prestatu eta lehen berri gisa gutun hau ezagutzera emateko; Gipuzkoan esku pribatuetan dagoen gutuna da. Pozgarria da hau Santa Teresaren jaiotzako bosgarren menduerrera ospatzen ari garen honetan gertatzea. Gutun hau aurkezterakoan iruzkin labur bat egingo dugu, geroagorako eta gaztelaniazko aldizkari baterako utziz testu originalaren argitalpena, azalpen osoago batekin eta xehetasun tekniko gehiagorekin.

1. Gutunaren egoera

Lau orrialde dituen paper tolestua da; lehenengo bi orrialdeak ama Teresak idatziak dira, eta hirugarren orrialdean amaitzen da 11 lerroekin; laugarren orrialdean, berriz, gutunaren helbidea dator.

Testua oso ondo irakur daiteke; hala ere, badu zailtasun bat: erdialdean, hau da, gutuna tolestean zen gunean, goitik behera, ia lerro guztietan letra bat edo bi (hiru) falta dira, osatzea lortu ditugunak. Papera apurturik zegoen eta itsatsi egin zen, egintza horren ondorioz aipatutako erdiko letrak galduz.

2. Gutuna noiz eta non idatzi zen

Ama Teresa Jesusenak sarri adierazten zuen gutuna idatzi zen eguna; gutun honetan ez dago hilaren ez egunaren inolako aipamenik. Gehienetan ez zuen idatzen urterik. Gutun honetan, orain dela 440 urte idatzia den honetan, hiriaren izenik ere ez da aipatzen. Hala ere, gutunaren edukia aztertzeak laguntzen digu data zehazten.

- a) Gutunean, Malagónko moja karmeldarren ama priorea, Brianda San Joserena, gaixotu eta haren ordezt behin-behinekoz komunitatearen buru egingo zuena bilatzen zenekoa kontatzen da. Hori 1576tik 1577ra bitartean izan zen.
- b) Santa Teresaren hainbat gutunetatik dakigu, gutun hau idatzen duenean, Brianda San Joserena oraindik Malagónen zegoela: 1576ko urriaren 31n Toledora aldatzeko asmoaz zebiltzan (194. gutuna).
- c) Bestalde, badakigu, ama Teresaren Ordena berrian, karmeldar oinetakodunen edo lege zaharreko karmeldarren nagusiekin izandako arazo larri eta zailtasunengatik, ama

Teresak komentu batean itxirik egon behar zuela, fundazioetara gehiago irten gabe. Bera Gaztelarantz zihoan, Sevillako moja karmeldarren fundazioa egin ondoren. Beraz, Toledoko bere komentuan geratu zen; eta hemen iraungo zuen 1576ko ekain-uztailetik 1577ko uztaileira arte. Hementxe idazten du gure Santak gutun hau.

- d) Baina gutun honetako esaldi batzuek gutun hau irailean idatzi zuela pentsarazten digute. 124. gutunean, 1576ko irailaren 20an idatzitakoan, hiru bat esaldi agertzen dira, gutun honetan ageri direnen parekoak. Are gehiago, irailaren 20ko gutunean Malagónera bidalitako beste gutun baten erreferentziak ageri dira (ziur asko, hemen argitaratzen dugun gutun honenak), eta baita Malagóngo moja karmeldarren komunitatearen egoeraz antzeko ideia eta esaldiak ere, esaterako, mojak urrunetik ekartzeko aukera, eta Teresaren desira Joana Bautista komunitateko buru izan dadin, etab. Hau da, gutun hau Teresaren 124. gutuna baino lehenagokoa da. Beraz, Toledon idatzitako gutun hau, 1576ko irailaren erdi aldean koka daiteke.

3. Gutunaren hartzailea: Gaspar Villanueva

Gaspar, Villarrubia de los Ojos-ko (Ciudad Real) semea zen, eta Malagóngo Moja Karmeldarren kapilau eta aitor-entzule zeregina betetzen zuen. Hiru gutun daude Teresak kapilauari idatziak; haietatik dakigu komunitatean nolako gora-beherak eta arazoak izan ziren eta nola jokatu zuen kapilauak, ez beti zuhurtziaz, 1577an gertatu zen bezala, orduan ama Teresak ohartarazpen serio batzuk egin baitzizkion, aitor-entzule zereginetik bota eta aita karmeldar batekin ordezkatu baitzuen; Gaspar jaunak apaltasunez onartu zuen erabakia; eta jarrera hau oso atsegin izan zitzaion ama Fundatzaileari.

Kapilauak bi arreba izan zituen Malagóngo komentuan: Ana Aingeruena, 1576ko ekainaren 11n profesa egin zuena; eta Isabel Igokundekoa, 1578ko maiatzaren 4an profesa egin zuena; gutuna idatzi zenean Isabel sartzeko izango zen aipatutako komunitatean. Haren gurasoak Alonso Villanueva eta Guiomar González ziren.

Gaspar jaunak Malagóngo informazio-prozesuan egin zituen deklarazioak, Teresa Jesusenaren beatifikazio eta kanonizaziorako, 1596ko abenduaren 13an.

4. Gutunaren gaiak

a) Gutunaren gai nagusia ama Priorearen gaixotasuna eta komunitaterako ordezeko bat hautatzea da. Teresaren gutunetatik dakigu hango egoera zein den. Brianda San Joserenak Toledon egin zuen profesa 1571ko apirilaren 15ean; Malagóngo monasteriora joan zen, eta oso gazterik hautatu zuten komunitateko ama priore kargurako, Teresaren gogoko izanez. Hala ere, gaixotasun nahiko larri batek jo zuen laster, eta bere kargua betetzeko ezindua zegoen. Orduan, haren ordezkomunitateko buru izango zenaren bila hasi ziren. Gutun honetan Teresak nahiago zuen pixka bat itxarotea, ama prioreak hobera egiten zuen ikusteko. Eta halaxe, egun gutxi barru, irailaren 20an, jaso zuen une bateko hobekuntzaz hitz egiten zuen albistea. Egoera honetan, gaixorik zen ama priorea Toledoko komunitatera eramateko asmoa, hilabete batzuk geroago gauzatuko zena. Ama Teresak haren ordezkoa, Salamancan ama priore karguan zegoena izatea nahi zuen, Ana Gizakundekoa (Tapia) (ikus irailaren 6ko gutuna). Gero, komunitate bereko moja bat hautatzea hobe izango zela-eta, Joana Bautistagan (Baena) pentsatu zuen, gutun honetan eta 124. gutunean, irailaren 20koan, esaten denez; hala ere, ama prioreak (Briandak) Beatriz Jesusena (Cepeda) hautatu zuen ego-

la gran des de ser p. m. f. i. e. p. e. a. m. e. n.
 des pues de ceptada la carta llego aca el buena a f. h. y. z.
 q. me dio de to. f. u. m. de la pena q. f. e. g. i. b. i. q. p. o.
 cas co. f. o. s. me fue leu. ta. el. f. u. e. m. f. e. a. d. i. v. b. e. n.
 di. to. q. a. f. i. v. o. r. d. e. n. v. i. d. o. v. o. q. u. i. f. i. e. r. a. p. o. d. e. r.
 d. e. r. t. o. q. v. m. m. a. n. n. i. s. l. a. s. c. o. s. p. o. r. a. c. a. n. o.
 e. s. t. a. d. e. f. u. e. r. t. e. q. f. e. f. u. f. a. l. i. z. f. i. n. o. f. i. e. r. p. a. d. v. i. d. e.
 e. d. e. e. s. t. a. r. c. o. t. i. m. p. o. e. l. m. i. s. i. o. e. s. t. a. m. a. l. y. f. i.
 m. e. d. y. e. s. t. o. m. i. s. e. r. m. o. t. a. n. d. i. l. i. j. e. n. t. o. e. c. o. n. t. a. r.
 m. e. l. o. p. a. f. o. q. a. r. a. n. o. f. u. f. i. e. r. a. s. l. o. q. u. i. s. i. v. o.
 m. o. f. o. x. t. a. t. o. s. l. o. s. c. a. r. y. l. o. s. n. e. g. o. c. i. o. s. t. u. e. g. e. t.
 t. u. a. e. l. l. o. s. m. u. n. e. s. t. e. r. i. e. f. f. e. t. o. r. d. e. r. o. p. o. t. r. o. s. c. a.
 v. f. a. y. p. o. r. l. o. s. q. u. a. l. i. s. e. v. i. s. i. t. a. d. o. r. m. m. e. d. e. p. o. f. a.
 l. i. z. d. a. q. u. i. y. o. u. g. t. a. r. g. a. d. e. l. a. c. o. r. t. e. s. i. n. f. i. e. t. i. e.
 d. e. f. u. p. a. t. e. r. y. d. a. d. q. u. o. v. i. e. n. e. f. i. n. o. q. u. o. n. o. p. a. r.
 p. e. n. a. a. l. a. m. p. r. i. v. i. n. d. e. e. s. s. e. p. o. n. d. e. r. a. f. i. b. m. l. e.
 d. i. g. n. q. a. c. a. b. a. d. o. s. c. i. e. r. t. e. g. i. o. s. q. a. o. r. a. f. e. t. a. t. a. d. e.
 l. a. o. r. d. e. n. o. r. d. e. n. a. r. a. e. l. f. e. n. o. n. e. s. v. e. a. m. o. s. q. a. s. t. o. n. e. s.
 m. e. t. i. z. a. p. o. r. q. n. o. f. e. s. i. b. a. m. a. d. t. o. p. a. r. e. c. a. q. n. o. e. d. e.
 d. e. f. a. r. d. e. y. r. e. l. o. d. e. m. o. s. m. u. c. h. o. y. e. s. t. o. n. d. i. z. c. o.
 l. o. s. n. e. g. o. c. i. o. s. a. l. a. m. p. r. i. o. f. i. n. o. q. f. u. f. i. e. n. a. l. e. l. u. a.
 n. o. n. f. a. c. i. m. o. v. i. c. a. r. i. a. q. u. i. e. p. u. e. d. a. y. r. l. a. q. m. e.
 p. o. r. l. e. p. a. r. e. g. i. e. r. e. p. o. r. q. u. e. f. u. e. l. e. a. c. e. r. f. e. o. t. r. a. o. f. a.
 f. i. a. q. u. i. v. i. n. e. r. a. q. u. i. e. e. r. a. y. o. l. g. a. r. a. m. o. s. n. o. l. v.
 y. y. a. s. e. d. e. t. r. a. e. r. d. e. m. u. l. t. y. a. f. i. q. f. i. d. e. t. e. n. e. m. e.
 a. f. t. u. e. r. f. i. d. o. s. n. o. s. a. c. e. d. a. s. a. l. a. m. p. r. i. o. r. a. f. a. l. u. e.
 p. a. r. e. t. e. n. e. y. q. t. r. a. t. a. o. n. o. s. m. o. a. f. u. e. r. t. e. c. o. t. a. f. e. g. i. o. s.

kiagotzat; Teresaren iloba zen, hau da, beraren lehengusuaren alaba, Frantzisko Cepedarena.

b) Bide batez, beste gai batzuk ere aipatzen dira. Esaterako, Toledoko komunitatean gaixorik zen ama priorearen alde otoitz egiten zela. Eta gaixotasun hau nahiko ez balitz bezala, kapilauak ere bere sufrimenduak zituen, sukar larriek jota baitzebilen. Hortik Teresaren gogoeta, haren gogoia altxatu nahirik: “Haren Maiestateak gorde beza berori, eta eman biezaio pazientzia, oraintxe lortzen baita garaipena betikotasun hartarako; han, gozatzen dugunaren ondoan, gutxitzat joko dugu sufritu genuen guztia”.

c) Teresaren esaldia “nuntzioa gaizki informatua dago”, aita Tostadoren etorrerak eta jarrerak sortu zuen egoera berriari dagokiola dirudi. Jeronimo Tostado, karmeldar oinetakoduna, teresiar familia berriaren oso kontrakoa zen. Aurreko urtean Piacenzako Kapitulu Jeneralak Espainiako Karmeldarren bisitari izendatu zuen. Zeregin hori betetzera iritsi zen Madrilera 1576ko abuztuan; eta Ormaneto nuntzioaren aurrean agertu zen. Une horretan nuntzioari emandako informazioaz ariko da, beharbada, Teresa esaldi horretan. Harrezkero, ia bi urte oso latzak etorriko dira Teresarentzat eta honen karmeldar mugimendu berriarentzat, desagertzeko arrisku larrian egotera.

5. Lexikoaz zenbait bitxitasun

Datu bitxi bat dago, hau da, gainerako idazki eta gutunetan Santa Teresak inoiz erabili ez duen hitz bat. Kapilauak *antxumetxo ugari* dituela dio: “muchos cabrititos”; hau da, *cabritos* esan beharrean, *cabrititos* dio.

Bere idazkietan bi aldiz soilik erabili duen beste hitz bat ageri da: “retortero” hitza, “traer al retortero” esamoldea, *atse-*

denik gabe eta nabasian batetik bestera zereginak betetzen aritzea esan nahi duena.

6. Testua

+
ihs

Espiritu Santuaren grazia izan bedi beti berorrekin, amen.

Gutuna itxi ondoren iritsi zen hona Antonio Ruiz eta hartu nuen nahigabeagatik nahiko gau eskasa igaro nuen, gauza guxti izan arren niri loa galarazten didatenak; bedeinkatua izan bedi Jainkoa, honela eratzten baitu guztia.

Berorrek agintzen duena egin ahal izatea nahiko nuke nik. Gauzak hemendik ez daude ohi den bezala irteteko eran, beti egon behar dudan lekurantz izan ezik, nuntzioa gaizki informatua baitago, eta nire fraide hauek urrats guztiak kontaktzen hain arreta handikoak direnez, ezin zaie orain aukerarik eman; eta gutunak eta arazoak hainbeste direnez, monasterioak atsedetik gabe itota ibiltzea litzateke; horregatik eta beste arrazoi batzuegatik, bisitariak ez dit utzi hemendik irteten, gortetik hurbil dagoelako. Eta berorren aitatasuna konturatzen da, ama prioreari nahigaberik ez ematearren, erantzun beharra duela; beraz, esan biezaio berorrek, orain tratatzen ari diren Ordenaren zenbait arazo amaitzen direnean, elkar ikus dezagula aginduko duela Jaunak; ez da hau nahigabetu ez dadin esaten den gezurtxoa; alderantziz, badirudi ez naizela joan gabe geratuko.

Gainerakoan, oker handia da arazoekin ama prioreagana jotzea, baina haren agurgarritasunak izenda beza moja bat ordeztuko gisa, beragana jo dezaten, egokiena dirudiena; izan ere, besterik ez da egiten, hemen nire gogokorik balego, baina ez dago, eta oso urrutitik ekarri behar; beraz, itxaron egingo

nuke, Jainkoak ama prioreari osasuna emateko grazia egiten digun ikusi arte.

Uste dut, ene aita, berori [Jainkoak] sendo bezala tratatzen duela hain golpe latzekin, ama priorearen gaitza nahiko izango baitzen, berorrek sufritzeko hain gauza latzik izan gabe. Oi, bai ona zela launakako sukarrena, gainera beste gaitz batetik jotzeko! Bedeinkatua izan bedi Jauna!

Niri pena handia ematen dit, eta egiaz beste zereginik izan ezean, poztuko nintzateke hor berorri zerbitzu egin ahal izateko tokian egoteaz, eta bata bestearekin asaskatuko ginateke; izan ere, berorrek bere espirituaz baliatu nahi balu ere, osasunik ezaz dena asaldatzen da eta mina biziago bihurtzen. Horrela, handiagoa izango da merezimendua. Saia bedi berori, Jainkoaren maitasunagatik. Poztekotan, ama priorea maite dugunok Jaunagan, haren irabazi handian poztu beharko genuke, baina konturatzen naizenez, ez dugu nahi geurea baino besterik.

Betiere, berorrek esan biezaio ordezko bat izenda dezala, egokiena deritzana; hala ere, ez biezaiote eman pena handiagorik arazoekin, hain bitarte txikirako edonork egin baitezake ongi.

Ama priorea inor seinalatzeko eran ez balego, badaezpada, Joana Baustistari idazten diot, ardura hau bere gain har dezan; eman biezaio gutuna, diodanez, honetaz tratatzeko eran ez balego; baiezkoan, ordea, eskatzen dut, haren agurgarritasunak izenda dezala zeregin hori beteko duen bat.

Etxeari dagokionez, nik konfiantza osoa dut Antonio Ruizengan, eta ez dut uste laguntzeko inor beharko dutenik; askoz ere hobeki nago hemen; hori horrela da gauza askorenagatik; han, ordea, ezingo nituzke egin ez baliatu; gainera, gaixorik ikusteak pena emango lidake, eta gure Jaunari gomendatzeko hobeki nago. Hemen guztiek egiten dute. Haren Maiestateak gorde beza berori, eta eman biezaio pazientzia,

oraintxe lortzen baita garaipena betikotasun hartarako; han, gozaten dugunaren ondoan, gutxitzat joko dugu sufritu genuen guztia.

Berorrek antxumetxo ugari dituela esaten didate, aurtan oso ongi joan zaizkiola gauzak; horrek poztu nau, bada, hainbeste gaixotasunez, berorrek bere buruari egin ohi dion baino adiguri gehiago behar du.

Berorren mirabe apal eta alaba,
Teresa Jesusena

+

Ene jaun eta aita lizentziadun Gaspar Villanueva txit goresgarri eta agurgarriari.

Julen Urkiza – Luis Baraiazarra